

**4622**

229/1996 DEKRETUA, irailaren 24koa, Euskal Autonomi Elkartean nekazaritza ekologikoa, eta bere produktuen elaborazioa eta merkaturatzea arautzeko, eta Nekazaritza Ekologikoaren Euskal Kontseilua eratzeko dena.

1991ko ekainaren 24ko Kontseiluak onetsi zuen nekazaritza ekologikoari eta nekazaritzako produktuetan eta elikagaietan haren aipua egiteko moduari buruzko 2092/1991 (EEE) Arautegia. Arautegi horretan ezartzen da kontrol-araubide batera makurtu behar direla nekazaritza zein abeltzaintza ekologikoko produktuak merkaturatu nahi dituzten ekoizle, importatzaile edo transformatzaleak. Kontrol horren helburu nagusia da ekonomi agenteeek errespetu ditzaten Europako Elkarteo ekoizpen-arauak, eta erabil ez dezaten Europako Elkarteo arauetan baimenduta ez dagoen produkturik (ongarriak, landare-osasunerako produktuak eta abar).

Aipaturiko kontrol-araubidea aplikatzeko ardura dutenak estatu kideak izanik, eta Konstituzioaren eta Euskal Herrirako Autonomia Estatutuaren ondorioz eskumenak banatzeko eratu den sistema kontuan harturik, Euskal Autonomi Elkarteari dagokio bere lurraldereemuaren barruan kontrola egiteko eskuduna den agintaria izendatzea, eta Euskal Autonomi Elkarteari dagokio, halaber, behar diren antolaketa-neurriak eta xedapen arau-emaileak hartzea, batetik, produktuak ekoizbide ekologikoari buruzko aipuren batekin aurkeztu ahal izateko kontrol-sistemaz baliatzeko modua bermatzeko jarduleei, eta, bestetik, produktu hauen ezagutza eta sinesgarritasuna sendotzeko kontsumitzai-leen artean.

Ondorioz, Industri, Nekazaritza eta Arrantza sailbu-ruaren proposamenez, Jaurlaritzaren Kontseiluak 1996ko irailaren 26an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

## XEDATU DUT:

*1. atala.- Aplikazio-eremua.*

Kontseiluaren ekainaren 24ko 2092/1991 (EEE) Arautegiaren araberako ekoizbide ekologikoari buruzko aipuren bat daramaten nekaritzako produktuak eta elikagaiak ekoitzu, elaboratu eta merkaturatzeko modua Euskal Autonomi Elkartearen eskumen eta geografi eremuaren barruan arautzea, eta nekazaritza ekologikoaren arloan sustapen, kontrol eta aholkamendurako tresnak arautzea dira dekretu honetara bildutako xedapenen xedea.

Dekretu honen aplikazio-eremuaren barruan dauden nekazaritzako produktuak eta elikagaiak ondoko hauek dira:

a) Nekazaritzako produktu begetal transformatu gabeak, eta abereak eta abere-produktu transformatu gabeak, azkeneko bi hauen kasuan ustiategien ekoizpen-abiaburuak eta kontrolerako arau zehatzak ezartzen diren neurrian.

**4622**

DECRETO 229/1996, de 24 de septiembre, por el que se regula en la Comunidad Autónoma del País Vasco la producción agraria ecológica, su elaboración y comercialización, y se crea el Consejo Vasco de la Producción Agraria Ecológica.

El Reglamento (CEE) n.º 2092/91, sobre la producción agrícola ecológica y su indicación en los productos agrarios y alimenticios, aprobado por el Consejo el 24 de junio de 1991, establece la obligación que tienen de someterse a un régimen de control los productores, importadores o transformadores que deseen comercializar productos de la agricultura y la ganadería ecológicas. Lo que fundamentalmente se persigue con este control es garantizar que los agentes económicos respeten las normas de producción de la reglamentación comunitaria y no utilicen productos -como fertilizantes y productos fitosanitarios- que no estén autorizados en ella.

Siendo los Estados miembros los encargados de aplicar este régimen de control y teniendo en consideración el sistema de distribución competencial derivado de la Constitución y del Estatuto de Autonomía para el País Vasco, a la Comunidad Autónoma corresponde designar a la autoridad de control competente para realizarlo en su ámbito territorial, y adoptar las medidas organizativas y las disposiciones normativas precisas que garanticen a los operadores el acceso al sistema de control para que los productos puedan presentarse con indicaciones referentes al método de producción ecológica, y que, asimismo, contribuyan a afianzar el conocimiento y credibilidad de estos productos entre los consumidores.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Industria, Agricultura y Pesca, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 24 de septiembre de 1996.

## DISPONGO:

*Artículo 1.- Ámbito de aplicación.*

Las disposiciones contenidas en el presente Decreto tienen por objeto la regulación en el ámbito competencial y geográfico de la Comunidad Autónoma del País Vasco la producción, la elaboración y la comercialización de los productos agrarios y alimenticios que lleven indicaciones referentes al método de producción ecológica con arreglo al Reglamento (CEE) n.º 2092/91, del Consejo, de 24 de junio, así como los instrumentos de promoción, control y asesoramiento en materia de actividad agraria ecológica.

Los productos agrarios y alimenticios que se considerarán incluidos en el ámbito de aplicación de este Decreto son los siguientes:

a) Productos agrícolas vegetales no transformados, así como animales y productos animales no transformados, en la medida en que en estos dos últimos casos, los principios de producción en las explotaciones y las correspondientes normas específicas de control sean establecidas reglamentariamente.

b) Jatorri begetaleko osagai bat edo gehiago duten eta giza elikadurarako diren produktuak, eta abere-jatorriko osagaiak dituzten eta giza elikadurarako diren produktuak, baldin eta, azkeneko kasu honi dagokionez, aurreko idazatian abere-ekoizpenari buruz aipatzen diren xedapenak ematen badira.

#### *2. atala.- Babestutako adierazpenak.*

1.- Lehenengo atalean definitutako elikagai eta nekazaritzako produktuetarako erreserbatuko dira atal honen 2. idazatian adierazten diren terminoak, baldin produktu horiek ekoiztu, elaboratu eta kontserbatzeko baimendutako produktuak bakarrik erabiltzen badira, eta dekretu honetan eta nekazaritza ekologikoari buruz indarrean dauden gainerako xedapenetan ezarritakoa betetzen bada.

2.- Aipaturiko erreserba hori produktu jakin bakoitzaren izenerako ere zabalduko da, noiz eta izen hori «produktu kimiko sintetikorik erabili gabe lortutakoa» terminoarekin edo «biologikoa», «ekologikoa», «bioidinamikoa», «organikoa» terminoekin loturik agertzen denean, edota «nekazaritza» zein «abeltzaitza» «biologikoaren», «ekologikoaren», «bioidinamikoren», «biologiko-dinamikoren» edo «organikoaren emaitza» terminoekin loturik agertzen denean.

Halako produktuak ekoizbide ekologikoari buruzko adierazpena daramala ulertuko da, baldin etiketan, publizitatean, merkataritza-agirietan edo kartel adierazgarrietan produktua edo bere osagaiak aurreko leerroaldiko termino eta aipuekin identifikatzen badira, eta, oro har, kontsumitzaleari produktua bera edo bere osagaiak nekazaritza ekologikoaren araukekin bat etorriz lortu direla iradoki edo ulertaraz diezaiokeen adierazpen edo kalifikatzailerik badarama delako produktuak.

3.- Debekaturik dago bestelako elikagai eta nekazaritzako produktuetan erabiltzea, antzekotasun fonetiko edo grafikoa dela eta, arautegi honetan babesten direnekin nahas daitekeen edozein izen, marka, adierazpen edo zeinu, nahiz eta ondoan «mota», «estiloa», «gusta», edo antzerako terminoren bat izan.

4.- Atal honen 1. idazatian aipaturiko adierazpenak 2092/1991 (EEE) Arautegiaren 5. atalean ezarritakoaren arabera erabiliko dira.

#### *3. atala.- Ekoizpen eta elaboraziorako arauak.*

Dekretu honen 2. atalaren 2. idazatian aipatutako adierazpenetarik edozein erabiltzen duten jarduleek, 2092/1991 (EEE) Arautegiaren 6. atalean eta xede berari aplikatzekoak diren gainerako xedapen osagarrietan jasotako ekoizpen-araukekin bat etorriz ekoiztu edo elaboratu behar dituzte produktuak.

#### *4. atala.- Eskudun agintaritza.*

Euskal Autonomi Elkarteko lurrualdean Industri, Nekazaritza eta Arrantza Sailak beteko ditu 2092/1991 (EEE) Arautegiaren 8 eta 9. ataletan aipatutako eskudun agintaritzaren eginkizunak.

b) Productos destinados a la alimentación humana, compuestos esencialmente por uno o más ingredientes de origen vegetal, así como productos destinados a la alimentación humana que contengan ingredientes de origen animal, siempre que, en este último caso, sean dictadas las disposiciones sobre producción animal indicadas en el apartado anterior.

#### *Artículo 2.- Indicaciones protegidas.*

1.- Quedan reservados los términos indicados en el párrafo 2 de este artículo a los productos agrarios y alimenticios definidos en el artículo primero, en cuya producción, elaboración y conservación sólo se han empleado productos autorizados, cumpliendo además lo establecido en este Decreto y demás disposiciones vigentes en materia de agricultura ecológica.

2.- La reserva otorgada se extiende al nombre de cada producto en particular, ligado al término «obtenido sin el empleo de productos químicos de síntesis», a los términos «biológico», «ecológico», «biodinámico», «orgánico» y a las menciones «procedente de la agricultura» o «procedente de la ganadería» seguido de los términos «biológica», «ecológica», «biodinámica», «biológica-dinámica» y «orgánica».

Se entenderá que un producto lleva indicaciones referentes al método ecológico de producción cuando en el etiquetado, publicidad, documentos comerciales o carteles indicativos el producto o sus ingredientes se identifique con los términos y menciones señalados en el párrafo anterior y así mismo, cuando, en general, lleve cualquier otra indicación o calificativo que sugiera al comprador o permita al consumidor entender que el producto o sus ingredientes han sido obtenidos de acuerdo con las normas del método de producción agraria ecológica.

3.- Queda prohibida la utilización en otros productos agrarios y alimenticios, de otras denominaciones, marcas, expresiones y signos que, por su similitud fonética o gráfica con los protegidos, puedan inducir a confusión con los que son objeto de esta reglamentación, aún en el caso de que vayan precedidos por las expresiones «tipo», «estilo», «gusto» u otras análogas.

4.- El uso de las indicaciones mencionadas en el apartado 1 de este artículo se realizará de acuerdo con lo establecido en el artículo 5 del Reglamento (CEE) 2092/1991.

#### *Artículo 3.- Normas de producción y elaboración.*

Los operadores que utilicen cualquiera de las indicaciones citadas en el artículo 2.º, apartado 2, de este Decreto deberán producir o elaborar sus productos de acuerdo con las normas de producción contenidas en el artículo 6 del Reglamento (CEE) 2092/1991 y en las demás disposiciones complementarias referidas al mismo objeto que sean de aplicación.

#### *Artículo 4.- Autoridad competente.*

El Departamento de Industria, Agricultura y Pesca ejercerá en el territorio del País Vasco las funciones de autoridad competente citadas en los artículos 8 y 9 del Reglamento (CEE) 2092/1991.

*5. atala.* – Nekazaritza Ekologikoaren Euskal Kontseilua.

Nekazaritza Ekologikoaren Euskal Kontseilua eratzen da, Industri, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren organo kolegiatura izan dadin, organikoki eta hierarkikoki Nekazaritzako Elikagai Politika eta Industriarako Zuzendaritzari atxikia, eta bere egitekoa dekretu honetan nekazaritza ekologikoaren alorrean esleitzen zaizkion aholkularitza eta lankidetza eginkizunak betetzea izango da.

*6. atala.* – Nekazaritza Ekologikoaren Euskal Kontseiluaren osaketa eta eginkizunak.

1.– Kontrol-araubidearen menpeko produktu ekologikoak ekoiztu, elaboratu eta importatzen dituzten enpresetako jardule titularrak egongo dira ordezkaturik kontseiluan, baita nekazaritza ekologikoko elkartea eta kontsumitzaileen elkarrekin ere.

2.– Kontseiluaren osakideak ondoko hauek izango dira:

- a) Lehendakaria.
- b) Ustiategi ekoizleen titularrak ordezkatzen dituzten hiru kontseilukide.
- c) Empresa elaboratzaleen titularrak ordezkatzen dituen kontseilukide bat.
- d) Beste herrialde batzuetatik importatzen duten enpresen titularrak ordezkatzen dituen kontseilukide bat.
- e) «Ekonekazaritza» Euskal Herriko Nekazaritza Ekologikoko Elkartearen Federazioaren ordezkari bat.
- f) Kontsumitzaileen elkarteen ordezkari bat.

3.– Sailburuaren aginduaren bidez izendatutako Industri, Nekazaritza eta Arrantza Saileko funtzionario bat arituko da idazkari, hizpidez baina hautespiderik gabe. Izendatzeko aginduan, titularra ezezik ordezkoa ere izeneztatu da, huts, ausentzia, gaixotasun edo legez onetsitako bestelako egoeratarako.

4.– Kontseiluaren bileretara, aurrekoez gain, Nekazaritzako Elikagai Politika eta Industriarako Zuzendaritzaren ordezkari bat eta hiru foru aldundiek izeneztatutiko ordezkari bana joango dira, guztiak nekazaritza ekologikoan adituak. Hortaz, azken hauei ere deitu beharko zaie kontseiluaren bilkuretarako. Lau hauek hizpidez baina hautespiderik gabe jardungo dute, eta kontseiluaren idazkariari jakinarazi beharko zaio haien izendapena.

5.– Ekoizpen, elaborazio eta importazioaren ordezkariak demokratikoki aukeratuko dira azpisektore bakotzean, hau da, arloan arloko erregistroan inskribatutakoek inskribatutako artetik aukeratuko dituzte. Kontseilukide horiek loturik egon behar dute ordezkatzenten duten sektorearekin, bai zuzenean bai ordezkatu behar dituzten jardueretan aritzen diren sozietateetako buruzagiak direlako. Hala ere, ezein pertsona natural edo juridikok ez du izango ordezkari eta bikoitza kontseiluan, ez zuzenean ez eskumendeko enpresen edo baxkideen bitartez.

*Artículo 5.*– El Consejo de la Producción Agraria Ecológica del País Vasco.

Se crea el Consejo de la Producción Agraria Ecológica del País Vasco como órgano colegiado del Departamento de Industria, Agricultura y Pesca, adscrito orgánica y jerárquicamente a la Dirección de Política e Industria Agroalimentaria para ejercer las funciones de consulta y colaboración en materia de Agricultura Ecológica que se le atribuyen en el presente Decreto.

*Artículo 6.*– Composición y funciones del Consejo de la Producción Agraria Ecológica del País Vasco.

1.– En el Consejo estarán representados los operadores titulares de empresas de producción, de elaboración y de importación de productos ecológicos sometidos al régimen de control, así como las asociaciones de agricultura ecológica y de consumidores.

2.– El Consejo estará constituido por:

- a) El Presidente.
- b) Tres vocales en representación de los titulares de explotaciones de producción.
- c) Un vocal en representación de los titulares de empresas elaboradoras.
- d) Un vocal en representación de los titulares de empresas importadoras de países terceros.
- e) Un representante de la Federación de Asociaciones de Agricultura Ecológica de Euskal-Herria «Ekonekazaritza».
- f) Un representante de las asociaciones de consumidores.

3.– Un funcionario del Departamento de Industria, Agricultura y Pesca nombrado por Orden del Consejero, con voz pero sin voto, actuará como Secretario. En la Orden de nombramiento se designará al titular y su suplente para los casos de vacante, ausencia, enfermedad u otra causa legal.

4.– A las reuniones del Consejo, asistirán un representante de la Dirección de Política e Industria Agroalimentaria y tres representantes, designados cada uno por la correspondiente Diputación Foral, con especiales conocimientos en producción agraria ecológica, debiendo ser convocados a las sesiones del mismo. Todos ellos tendrán voz, pero no voto, y su designación será notificada al Secretario del Consejo.

5.– Los vocales representantes de la producción, elaboración e importación serán elegidos democráticamente en cada subsector, por los inscritos en el registro respectivo y de entre los propios inscritos. Estos vocales deberán estar vinculados a los sectores que representan, bien directamente o por ser directivos de sociedades que se dediquen a las actividades que han de representar. No obstante, una misma persona, natural o jurídica, no podrá tener en el Consejo doble representación, ni directamente ni a través de firmas filiales o socios de la misma.

Inskribatutako empresa bateko buruzagiak izategatik aukeratutako kontseilukideek, empresa horretako buruzagi izateari utziz gero, kontseilukide izateari ere utziko diote, nahiz eta beste empresa batera aldatu eta sektoarekin loturik jarraitu. Horrela gertatuz gero, ordezkoa izendatuko da barne-jardunbiderako arautegiak ezartzen duen eran.

EAeko hiru lurralte historikoetan diharduten eta behar bezala erroldaturik dauden kontsumitzaleen elkarteen edota elkarte horien federazioen arteko akordioaren bidez izendatuko da kontsumitzaleen elkarteen ordezkaria.

6.- Kontseilukideen agintaldia lau urtekoa izango da, eta horien buruan kontseilukideak berrautatuak izan daitezke. Hauteskunde-araubidea barne-jardunbiderako arautegian ezarriko da.

7.- Industri, Nekazaritza eta Arrantza sailburuak izendatuko du kontseiluko lehendakaria, ekoizleen, empresa elaborataileen eta empresa importatzaileen ordezkarien proposamena egin ondoren. Era berean lehendakariordea izendatuko da, zeinek lehendakari jardungo baitu, lehendakariaren huts, ausentzia edo gai-xotasuna gertatuz gero.

8.- Nekazaritza Ekologikoaren Euskal Kontseiluan eginkizunak ondoko hauek izango dira:

a) Barne-jardunbiderako arautegia egitea eta Industri, Nekazaritza eta Arrantza sailburuari aurkeztea, berak onets dezan.

b) Bai azterlanak egin daitezen, bai ekoizpena edo elaborazioa nekazaritza ekologikoaren sistemaren arabera burutu nahi duten nekazaritzako ustiategi edo nekazaritzako elikagai enpresak moldatzeko proiektuak gauza daitezen, bai ekoizpen prozesuak hobetzeko planak egin daitezen proposatzea eta horretarako laguntza teknikoa ematea.

c) Ekoizteko sistema ekologikoen ezagutza eta aplikazioa zabaltzen laguntzea, nekazaritza ekologikoa sustatzeko elkarteen jarduerei laguntza emanet.

d) Nekazaritza ekologikoaren alorrean proposamenak egin eta orientazioak ematea, Nekazaritzako Elikagai Politika eta Industriarako Zuzendaritzari zuzendutako txostenen bidez.

e) Nekazaritzako produktu ekologikoak identifikatu behar dituen logotipoa proposatzea, zein onetsiko baita Industri, Nekazaritza eta Arrantza sailburuaren aginduaren bidez.

f) Ekoizpen eta elaborazioari buruzko arau teknikoak aldatzeko edo eraskinak gehitzeko proposamenak egitea eta arau-proiekturei buruzko txostenak egitea.

g) Europako arauetan ezarritako terminoetan ekoizpen ekologikoari ekiten dioten jarduleak moldatzeko epea finkatzeko irizpideak hartzea.

h) Nekazaritzako elikagai ekologikoen kontsumoa eta zabalkundea sustatzeko ekintzak proposatzea.

i) Laguntza ematea identifikazio-adierazpenak behar bezala erabil daitezen.

Los vocales elegidos por pertenecer en calidad de directivos a una firma inscrita cesarán en su cargo al cesar como directivos de dicha firma, aunque siguieran vinculados al sector por haber pasado a otra empresa, procediéndose a la designación de su sustituto en la forma que se establezca en el reglamento de régimen interno.

La designación del vocal representante de las asociaciones de consumidores se realizará previo acuerdo de las Asociaciones de Consumidores o de sus Federaciones debidamente censadas y con ámbito de actuación en la totalidad de los Territorios Históricos de la C.A.P.V.

6.- La vigencia del mandato de los vocales del Consejo será de cuatro años, pudiendo ser reelegidos. El régimen electoral será establecido en el reglamento de régimen interno.

7.- El Presidente del Consejo será nombrado por el Consejero de Industria, Agricultura y Pesca, a propuesta de los vocales representantes de la producción, de las empresas elaboradoras y de las empresas importadoras. De igual forma, se designará un Vicepresidente que ejercerá las funciones del Presidente en los supuestos de vacante, ausencia o enfermedad de éste.

8.- El Consejo de la Producción Agraria Ecológica del País Vasco tendrá las siguientes funciones:

a) Elaborar el reglamento de régimen interno del Consejo y elevarlo al Consejero de Industria, Agricultura y Pesca para su aprobación.

b) Proponer y apoyar técnicamente, en su caso, la elaboración de estudios y la ejecución de proyectos de reconversión productiva de las explotaciones agrarias y de empresas agroalimentarias que deseen iniciar producciones o elaboraciones según el sistema de la agricultura ecológica, así como planes de mejora y optimización de los procesos productivos.

c) Colaborar en la difusión del conocimiento y la aplicación de los sistemas de producción ecológica, apoyando las actividades de las asociaciones de promoción de la agricultura ecológica.

d) Formular propuestas y orientaciones en materia de producción agraria ecológica, mediante informes dirigidos a la Dirección de Política e Industria Agroalimentaria.

e) Proponer el logotipo propio que habrá de identificar a los productos agrarios ecológicos, el cual tendrá que ser aprobado por Orden del Consejero de Industria, Agricultura y Pesca.

f) Proponer modificaciones y/o adiciones a las normas técnicas de producción y elaboración e informar los proyectos normativos correspondientes.

g) Aportar criterios para la fijación del periodo de reconversión de aquellos operadores que inicien producciones ecológicas en los términos establecidos en la normativa europea.

h) Proponer acciones de promoción del consumo y difusión de los productos agroalimentarios ecológicos.

i) Colaborar por el correcto uso de las indicaciones de identificación.

j) Kontrol-araubidearen menpeko ustiategien nekazari eta abeltzain titularrek ingurugiroa zaintzeko egiten duten lana kontsumitzaleari eta, oro har, gizarteari ondoen komunikatzen dieten salmenta-moduak sustatzea.

k) Jarduleak elkar daitezen eta merkaturatzeko bide propioak, betez ere salmenta zuzena, eratu daitezen bultzatzea.

9.- Kontseiluaren erabakien aurka errekurso arrunta jarri ahal izango zaio Industri, Nekazaritza eta Arrantza Saileko Nekazaritzako Elikagai Politika eta Industriarako zuzendariari.

*7. atala.* – Kontseiluaren bilkurak.

1.– Kontseilukideek ezartzen duten aldizkakotasunetegi egingo dira kontseiluaren bilkura arruntak, beti ere lehendakariak deialdia eginik, eta gutxienez hiru hilabetean behin. Horrez gain, aparteko bilkura egin ahal izango da, lehendakariak aparteko deialdia egiten badu, edo kontseilukideen herenak gutxienez horrela egiteko eskatzen badu.

2.– Bilkuren jardun-araubidea eta erabakiak hartzeko barne-jardunbiderako arautegian ezarriko dira.

*8. atala.* – Lehendakaria.

Nekazaritza Ekologikoaren Euskal Kontseiluko lehendakariaren eginkizunak hauek dira:

- a) Kontseiluaren ordezkari aritzea.
- b) Kontseiluaren osoko bilkuretako eztabaidean lehendakari aritza eta eztabaidak zuzentzea.
- c) Osoko bilkuretarako deialdia egitea eta bilkuretan lehendakari aritza.
- d) Hainbanakorik suertatuz gero, kalitatezko botoa ematea.
- e) Kontseiluak hartutako erabakiak bete eta betearaztea.
- f) Kontseiluak esleitzen dizkion gainerako guztiak.

9. *atala.* – Industri, Nekazaritza eta Arrantza Saileko Nekazaritzako Elikagai Politika eta Industriarako Zuzendaritzak beteko ditu 2092/1991 (EEE) Arautegiaren 9. atalean kontrol-agintaritzarako aurrikusten diren eginkizunak, beti ere Euskal Autonomi Elkarteari gai eta lurrealdearen arabera dagokion eskumen-eremuaren barruan. Horretarako, aipaturiko zuzendaritzak eginkizun hauek beteko ditu:

a) Jarduna kontrol-sistemaren menpean jartzen duten nekazaritzako enpresa ekoizleen jardule titular, industria elaboratzaileen jardule titular eta enpresa importatzaileen titularren erregistro edo zerrendak egin eta egunean mantenduko ditu.

b) Halakoa nekazaritzako elikagai ekologikoen kontrol-araubidearekin bat ote datorren erabakiko du; bidezko denean, e) idazatian aipatzen den logotipoa erabiltzeko baimena emango du; eta, arau-hausterik sumatuz gero, 2092/1991 (EEE) Arautegiaren 9.9 eta 10.3 ataletan aurrikusitako neurriak hartuko ditu.

j) Promover las formas de venta que mejor comuniquen al consumidor y a la sociedad en general la labor medioambiental de los agricultores y ganaderos titulares de explotaciones de producción sometidas al régimen de control.

k) Apoyar el asociacionismo entre los operadores y la constitución de canales propios de comercialización, y especialmente la venta directa.

9.– Contra los acuerdos del Consejo se podrá interponer recurso ordinario ante el Director de Política e Industria Agroalimentaria del Departamento de Industria, Agricultura y Pesca.

*Artículo 7.* – Sesiones del Consejo.

1.– El Consejo, convocado por el Presidente, se reunirá en sesión ordinaria con la periodicidad que sus miembros establezcan y, en cualquier caso, al menos una vez cada trimestre. Así mismo, se podrá reunir en sesión extraordinaria cuando el Presidente lo convoque con este carácter o a petición, al menos, de un tercio de sus miembros.

2.– El régimen de funcionamiento de las sesiones y el de la toma de acuerdos serán establecidos en el reglamento de régimen interior.

*Artículo 8.* – El Presidente.

Son funciones del Presidente del Consejo de la Producción Agraria del País Vasco:

- a) Ejercer la representación del Consejo.
- b) Ejercer la presidencia y dirección de los debates del Pleno del Consejo
- c) Convocar y presidir las sesiones del Pleno.
- d) Emitir voto de calidad en caso de empate.
- e) Ejecutar los acuerdos adoptados por el Consejo.
- f) Todas las demás que le puedan ser encomendadas por el Consejo.

*Artículo 9.* – La Dirección de Política e Industria Agroalimentaria del Departamento de Industria, Agricultura y Pesca ejercerá las funciones de autoridad de control previstas en el artículo 9 del Reglamento (CEE) 2092/1991, referidas al ámbito de las competencias que material y territorialmente corresponden a la Comunidad Autónoma. A tal fin, dicha Dirección desarrollará las siguientes funciones:

a) Llevar y mantener actualizados los registros o listados de los operadores titulares de empresas agrarias de producción, de operadores titulares de industrias elaboradoras y de titulares de empresas importadoras que sometan su actividad al sistema de control.

b) Resolver sobre la conformidad o no con el régimen de control de productos agroalimentarios ecológicos y, en su caso, autorizar el uso del logotipo a que se refiere el apartado e), así como adoptar las medidas previstas en el artículo 9.9 y 10.3 del Reglamento (CEE) 2092/1991, en el caso de que se descubra alguna infracción.

c) Produktu bakoitzta ekoiztu eta elaboratzeko arau tekniko, osagarri eta bereziak idatziko ditu. Arau horiek Industri, Nekazaritza eta Arrantza sailburuaren aginduaren bidez onetsiko dira.

d) Inskribatutako jarduleek ekoiztu, elaboratu edo merkaturatutako produktuak kontrolatuko ditu, nekazaritza ekologikoari buruzko arauak betetzen ote dituzten egiazatzeko eta, kasuan kasu, babestutako adierazpenak eraman ahal izateko kalifikazioa emateko ala ukatzeko.

e) Identifikazio adierazpenen erabilera egokia eta izen ona zaintzera jotzen duten jarduerak garatuko ditu, eta babestutako produktuak hedatu eta sustatuko ditu.

f) Landare osasunerako tratamenduez eta, batez ere, airezko tratamenduez arduratzen diren erakunde eta enpresekin etengabeko komunikazioa izateko kudeaketak egingo ditu, inskribatutako finka edo aldeetan eta inguruetañ tratamendu horiek eragoztek, eta medearri eta ongarri organikoen enpresak ikuskatuko ditu, baldin eta nahi badute beren produktuak nekazaritza ekologikoan bereziki erabiltzeko gomendatuak izan daitezen.

#### 10. atala.- Arau-haustea, zehapenak eta prozedura.

1.- Dekretu honetan, Kontseiluaren 1991ko ekainaren 24ko 2092/1991 (EEE) Arautegian eta xedapen osagarriean, edota nekazaritza ekologikoari buruz indarrean dagoen beste edozein xedapenetan xedatutako urratuz gero, zehapena ezarriko da Mahastiaren, Ardoaren eta Alkoholen Estatutuari buruzko abenduaren 2ko 25/1970 Legearekin, horri buruz martxoaren 23ko 235/1972 Dekretuaren bidez onetsi zen Arautegiarekin, eta kontsumitzaleen defentsaren eta nekazaritzako elikagaien ekoizpenaren alorreko arau-haustea eta zehapenak arautzen dituen ekainaren 22ko 1945/1983 Errege Dekretuaren bat etorriz.

2.- Zehapen-prozedurari dagokionez, Herri-administrazioen araubide juridikoari eta Administrazio guztientzako jardunbideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legean, zehatzeko ahalgoa erabiltzeko arautegia onesten duen abuztuaren 4ko 1398/1993 Errege Dekretuan, eta Industri, Nekazaritza eta Arrantza Sialeko jardun eremuetako zehapen prozeduren arloko eskumenak noren esku dauden finkatzen duen azaroaren 7ko 471/1995 Dekretuan ezarritakora makurtu beharra egongo da.

#### 11. atala.- Jarduleen betebeharra.

Dekretu honen 1. atalean aipatutako produktuetako edozein ekoiztu edo elaboratzen duten jardule guztiak, producto hori merkaturatzeko, ondoko betebehar hauek izango dituzte:

a) Jardueraren berri emango diote Nekazaritzako Elikagai Politika eta Industriako Zuzendaritzari. Berriematean, gutxienez, ondoko datu hauek jasoko dira:

- Jardulearen izena eta helbidea.

- Elaborazio-eragiketak burutzen diren aldeen eta, kasuan kasu, lurzatien kokalekua.

c) La redacción de las normas técnicas de producción y elaboración complementarias específicas de cada producto que serán aprobadas mediante Orden del Consejero de Industria, Agricultura y Pesca.

d) El control de los productos producidos, elaborados o comercializados por los operadores inscritos, para supervisar si cumplen con la normativa de producción agraria ecológica y, en su caso, calificarlos o descalificarlos para poder llevar las indicaciones protegidas.

e) El desarrollo de actuaciones tendentes a velar por el correcto uso de las indicaciones de identificación y el prestigio de las mismas, así como la difusión y promoción de los productos amparados.

f) La realización de las gestiones necesarias de comunicación permanente con los organismos y empresas responsables de los tratamientos fitosanitarios, principalmente los de tipo aéreo, para evitación de los mismos en las fincas y zonas inscritas y sus inmediaciones, así como la inspección de las empresas de enmiendas y fertilizantes orgánicos que deseen ver recomendados sus productos para uso específico en agricultura ecológica.

#### Artículo 10.- Infracciones, sanciones y procedimiento.

1.- Las infracciones a lo dispuesto en el presente Decreto, en el Reglamento (CEE) 2092/1991, del Consejo, de 24 de junio de 1991, y sus disposiciones complementarias, así como a cualquier otra disposición vigente en materia de producción agraria ecológica, serán sancionadas de acuerdo con la Ley 25/1970, de 2 de diciembre, del Estatuto de la viña, el vino y los alcoholés, su Reglamento, aprobado por Decreto 235/1972, de 23 de marzo, y el Real Decreto 1945/1983, de 22 de junio, que regula las infracciones y sanciones en materia de defensa del consumidor y la producción agroalimentaria

2.- En cuanto al procedimiento sancionador, se estará a lo establecido en la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, en el Real Decreto 1398/1993, de 4 de agosto, que aprueba el Reglamento para el ejercicio de la potestad sancionadora, y en el Decreto 471/1995, de 7 de noviembre, por el que se atribuyen competencias en materia de procedimientos sancionadores en las áreas de actuación del Departamento de Industria, Agricultura y Pesca.

#### Artículo 11.- Obligaciones de los operadores.

Todo operador que produzca o labore algún producto de los citados en el artículo 1 de este Decreto, con vistas a su comercialización deberá:

a) Notificar esta actividad a la Dirección de Política e Industria Agroalimentaria; la notificación incluirá, al menos, los siguientes datos:

- Nombre y dirección del operador.

- Localización de las zonas y, en su caso, las parcelas donde se realizan las operaciones de elaboración.

- Eragiketen eta produktuen ezaugarriak.
- Jardulearen konpromezua, eragiketak burutzean ekoizbide ekologikoaren aipurik daramaten produktuen ekoizpen, etiketatzera/edo importazioari buruzko arauzko xedapenak errespetatzeko konpromezua, alegia.
- Nekazaritzako ustiategi bat denean, ekoizleak noiz utzi dion lurzatietan ekoizbide ekologikoarekin batera-garri ez diren produktuak erabiltzeari.
- b) Jarduna Nekazaritzako Elikagai Politika eta Industriarako Zuzendaritzaren kontrolpean jarriko dute.
- c) Indarrean dauden arauetan kontrol-gastuetarako ezartzen diren tasa eta tarifak ordainduko dituzte.

#### AUDIBATERAKO XEDAPENAK

*Lehenagoa.* – Ahalmena ematen zaio Industri, Nekazaritza eta Arrantza sailburuari, dekretu hau indarrean jartzean «Nekazaritza Ekologikoa» Izendapen Generikoaren Kontseilu Arautzalearen erregistrotan inskribaturik dauden artetik izenda ditzan -inskribaturikoek proposamena egin ondoren- behin-behineko kontseiluko kideak, zeinen eginkizuna izango baita kontseiluaren barne-jardunbiderako arautegia egitea. Behin-behineko kontseiluak, halaber, bere gain hartuko ditu Nekazaritza Ekologikoaren Euskal Kontseiluari dekretu honen bidez esleitzten zaizkion eginkizunak, harik eta kontseilu hori behin betiko eratu arte. Behin-behineko kontseiluan ere ordezkaritza izango dute nekazaritza ekologikoko elkarteen eta kontsumitzaileen elkarteen.

*Bigarrena.* – Europako Batasunean abereen, abere-produktu transformatu gabeen eta abere-jatorriko osagaiak dituzten eta giza elikadurarako diren produktuen ekoizbide ekologikoari aplikatzeko abiaburu eta kontrol-neurri zehatzei buruzko xedapenik hartzen ez den bitartean, jarraituko dute ekoizpen-modu honi aplikatzekoak izaten Nekazaritza Ekologikoaren Kontseilu Arautzalearen baitan ekoizpen eta elaboraziorako ontsi diren arau teknikoek.

#### AZKEN XEDAPENAK

*Lehenengoa.* – Ahalmena ematen zaio Industri, Nekazaritza eta Arrantza sailburuari, bere eskumenen eremuaren barruan dekretu hau garatu eta aplikatzeko behar diren xedapenak eman ditzan.

*Bigarrena.* – Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean dekretu hau.

Vitoria-Gasteizen, 1996ko irailaren 24an.

Lehendakaria,  
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

Industri, Nekazaritza eta Arrantza sailburua,  
JAVIER RETEGUI AYASTUY.

– Características de las operaciones y de los productos.

– Compromiso del operador de efectuar las operaciones con arreglo a las disposiciones reglamentarias de producción, etiquetado y/o importación de los productos que lleven indicaciones referentes al método de producción ecológica.

– Cuando se trate de una explotación agrícola, la fecha en que el productor haya dejado de aplicar en las parcelas de que se trate, productos cuya utilización no sea compatible con el método de producción ecológica.

b) Someter su actividad al control de la Dirección de Política e Industria Agroalimentaria.

c) Abonar las tasas o tarifas que se establezcan en la normativa vigente por los gastos de control.

#### DISPOSICIONES TRANSITORIAS

*Primera.* – Se faculta al Consejero de Industria, Agricultura y Pesca para designar de entre los inscritos en los registros del Consejo Regulador de la Denominación Genérica «Agricultura Ecológica» en la fecha de entrada en vigor del presente Decreto, y a propuesta de éstos, los miembros de un Consejo provisional cuya función será elaborar el reglamento de régimen interno del Consejo, asumiendo transitoriamente la totalidad de las funciones que el presente Decreto atribuye al Consejo de la Producción Agraria Ecológica hasta que éste quede definitivamente constituido. En este Consejo Provisional también estarán representadas las asociaciones de agricultura ecológica y de consumidores.

*Segunda.* – En tanto no se adopten por la Unión Europea las disposiciones sobre principios y medidas específicas de control aplicables a la producción ecológica animal, productos animales no transformados y productos destinados a la alimentación humana que contengan ingredientes de origen animal, continuarán siendo de aplicación a estas producciones las normas técnicas de producción y elaboración aprobadas en el seno del Consejo Regulador de la Agricultura Ecológica.

#### DISPOSICIONES FINALES

*Primera.* – Se faculta al Consejero de Industria, Agricultura y Pesca para que en el ámbito de sus competencias dicte las disposiciones precisas para desarrollo y aplicación del presente Decreto.

*Segunda.* – El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 24 de septiembre de 1996.

El Lehendakari,  
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.  
El Consejero de Industria, Agricultura y Pesca,  
JAVIER RETEGUI AYASTUY.